

**ERABILERA PUBLIKOKO EREMU PRIBATUETAN INBERTITZEKO
DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO ETA IZAPIDEAK EGITEKO LAGUNTZAK**

1. Artikulua.-Xedea.-

Honako ordenantza honen xedea dirulaguntzak emateko eskakizunak, baldintzak eta prozedurak arautzea da, lurzoru pribatuen edo ondasun higiezinaren gainean kokaturiko eremuetan egiten diren berritze edo birgaitze hirigintza obren inbertsioak bideratzen laguntzeko. Eremu horiek unean uneko hirigintza planeamenduaren edo zegokien eraikitze baimenaren arabera, «erabilera Publikoaren egitatearen» ezaugarria mantendu dute eta inguruko hiritar guztiek erabili ahal izango dituzte. Hori dela eta, auzoko espazio libren horniduran ekarpena egiten dute aipaturiko eremuek.

Laguntzen diren inbertsioak eremu publikoa berritzeko edo birgaitzeko inbertitu beharko dira oso osorik. Kanpoan geratzen dira espresuki erabilera edo aprobetxamendu pribaturako lurzoruetan eta eremu edo erabilera elementuetan egiten diren inbertsioak. Berdin du eremua osorik edo zatika sartzen den edo jabeak nahiz hirugarren pertsonak diren inbertsioak egileak.

2. Artikulua.-Dirulaguntza eskaera.

Eskaerak Basauriko Udalean egingo dira, hori dela eta, udalak horien aldeko txostena egin beharko du eta dagokien lehentasun akordioa jaso beharko dute urteko inbertsio aurrekontuaren sail baten barruan.

3. Artikulua.-Kreditua izatea.

Dirulaguntza hauek emateko ebazpena egiteko unean aurrekontuan kreditua badagoela baieztatu beharko da.

Eskuragarritasun hori bermatzeko xedearekin, Hirigintza arloak proposamen bat egingo du urtero. Horren bidez, inbertsioetarako aurreikusi diren udal baliabideen ehunekoaren berri emango da eta dirulaguntzetarako lehentasunak zehaztuko dira. Baliabide horiek ez dira eskuragarriak izango indarrean dagoen udal Aurrekontuan dagokien atalean sartzen ez diren bitartean.

4. Artikulua.-Arau orokorrak.

Oro har, ondorengo arau hauek ezarriko dira laguntza jasotzeko izapidetzen diren espediente guztietan:

1. Laguntza jasotzeak ez du inolako eskubiderik aitortzen eta ez dio inolako betebeharra ezartzen Basauriko Udalari.
2. Edozein laguntza ematearen aldeko akordioak edo ebazpenak ez du aurrekaririk ezartzen, beraz, Basauriko Udala lotzeko ahalmenik ez du «norberaren ekintza» doktrinaren arabera.
3. Administrazioaren borondatea «ekintza diskrezional» modura eratuko da, eta soil soilik abagune eta eskuragarritasun irizpideetan oinarrituko da.
4. Basauriko Udalak bere organoen bitartez kontrolatzeko eta ikuskaritza egiteko erabateko ahalmena izango du, bai dirulaguntza lortzeari eta aplikagarriak diren baldintzei dagokienez bai baliabideen erabilera egokiari dagokionez. Hori egin ahal izateko, beharrezkotzat jotzen duen aldiro, txostenak, ikerketak, dokumentuak, eta oro har, Zuzenbidean onartutako frogak eskatu ahal izango ditu udalak. Halaber, egokitzat jotzen dituen ikuskaritzak egin ahal izango ditu, eta onuradunek horretarako laguntza eta erraztasuna eman beharko dute nahitaez.
5. Kontzesioaren akordioak inbertsioa benetan egin dela eta dirulaguntza inbertsioaren kopurura egokitzen dela egiaztatuko du; ez ordea, obren gauzatzea zuzena izan den ala ez. Beraz, obrak gauzatzen gerta daitezkeen okerrak eta akatsak direla-eta, Basauriko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.
6. Ebazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez ere.
7. Administrazioaren isiltasunak izaera negatiboa izango du beti.
8. Jabekideen Komunitateek ekintza berdinerako bestelako laguntza ekonomikorik eskuratu badute, horren berri izan bezain laster Udalari jakinaraziko diote idatziz; betiere, jasotako funtsak zertarako erabil diren justifikatu baino lehen. Diruz lagundutako obren kostea gainditzen bada, Udalak dagokion minorazioa egingo du Obren Ziurtagiriak ordaindu baino lehen.
9. Udal Dirulaguntzak Emateko Ordenantzaren 13.3.c) artikuluan aurreikusten dena aintzat hartuta, honako dirulaguntza hauek modu zuzenean emango dira eta laguntzak jasotzeko jarraitzen den ohiko prozeduratik salbuetsita egongo dira, aldez aurretik egiaztatuko baitira eskaera eragin duten interes publikoa, soziala nahiz ekonomikoa.

5. Artikulua.-Dirulaguntzen onuradunak.

1. Legalki osatuta dauden jabeak edo jabekideen Komunitateak baino ez dira onuradunak izango. Bestalde, Dokumentu Publikoan jasoak egongo dira, eginiko inbertsioaren elementuen gainean dituzten eskubideak, eta, hala badagokie, partehartze ehunekoak.
2. Jabekideen komunitateak araudiaren arabera deitutako Auzo Batzarrean erabilera publiko iraunkorreko lagapenaren gaineko akordioa hartuko du erreferentziako eremuarekiko (plaza, lorategia,...). Akordioa legeak ezartzen dituen gutxieneko aldeko botoekin lortu beharko da eta horren ziurtagiria Udaletxean aurkeztuko da.

3. Onuradunek jasotako funtsen ziurtagiriak gorde behar dituzte nahitaez, horien egiaztapena eta kontrola baieztatzeko egiten diren ekintzei begira.
4. Obran bertan kartel bat jarriko da Basauriko Udalak diruz laguntzen duen obra dela adieraziz.
5. Oro har, onuradunek 2004ko abenduaren 28ko Ohiko Udalbatzan onartutako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezartzen diren obligazioak bete beharko dituzte.

6. Artikulua.-Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Jabetzari emandako dirulaguntza kontzeptu gisa eman daitezkeen laguntzak kasu bakoitzean ezarriko dira, ondorengo parametro hauen arabera:

1. Itzuli beharrik gabe emango den gehieneko laguntzak ezingo du gainditu obraren esleipen kontratuan zehazturiko Aurrekontuaren %50, obra idazten eta zuzentzen parte hartzen duten teknikarien soldatak barne. Nolanahi ere, laguntzaren kopuruak, bakarka nahiz beste batzuekin elkartuta, ezingo du inolaz ere gainditu diruz lagundutako obraren kostea.

7. Artikulua.-Eskaintzen eskaera.

Jabekideen komunitateak obrak egiteko hiru aurrekontu eskatu beharko ditu gutxienez eta Udalan aurkeztu beharko ditu. Eskaintza udalaren eta Jabekideen komunitatearen arteko akordio bidez aukeratuko da.

8. Artikulua.-Aurrekontua kontsignatzea

Hirigintza Arloak kopuruari dagokion aurrekontu kredituaren betebeharraren aitortpena egingo du, dirulaguntzaren partidan kontsignaturiko gehieneko kopurua zehaztuz. Aipaturiko aurrekontu kreditua gehieneko dirulaguntzari dagokion kopurua baino txikiagoa baldin bada, ebazpenaren proposamenak eskuragarri dagoen kopurua gaindituko du, honako araudi honen 3. artikuluaaren lehenengo paragrafoan zehaztutakoaren arabera.

Dagokion partidaren kredituaren erretentzioa egin eta gero, Arloko ordezkariaren gastua baimentzeko proposamena egingo da. Ondoren, nahitaez bete beharreko eta Hirigintza Batzordearekiko loteslea izango ez den diktamena egingo da, eta Barruko Kontrolaren Atalak horren fiskalizazioa egingo du.

9. Artikulua. Dokumentazioa

Espedientearen gaineko ebazpena egiteko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira gutxienez:

1. Dirulaguntza eskaera.

2. Inbertsioaren onespen akta eta gauzatze kontratuarena edo konpromisoarena.
3. Proiektua txostenarekin batera, aurrekontua partida guztiak bereizita, eta egin beharreko interbentzioaren gauzatze egutegia eskumena duen teknikariaren sinadurarekin eta Elkargoaren zigiluarekin.
4. Inbertsioaren xedea den higiezinaren Jabetza tituluaren copia.
5. Jabetza partaidetzaren ehunekoak zehazten dituen tituluaren copia.
6. Obretako udal baimena edo parekoa.
7. Bizilagun Batzordearen akordioa erabilera publikoko zortasun iraunkorrari eta Udaletxeari egiten zaion lagapenari buruzkoa.
8. Basauriko Udaletxearekin zerga betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko ziurtagiria.
9. Jabekide Komunitatearen Lehendakariak edo bere ordezkioak eginiko adierazpena udal dirulaguntzak banatzeko Ordenantzaren 10. artikuluan zehazten diren debekuetan esku hartu ez dutela esanez.
10. Obrak egiteko hiru eskaintza aurkeztu behar dira gutxienez.
11. Obra gauzatzean eta zuzendaritzan diharduten Teknikariek egiten duten zerbitzuaren alokatze kontratuak.

10. Artikulua.-Izapidea .

a) Hasiera.

Laguntza eskaera Hirigintza Arloan egingo da, honako ordenantza honen 8. artikuluan zehazten den dokumentazio guztiarekin.

b) Jarraibideak.

Hirigintza Arloak, aurkeztutako dokumentazioa ongi dagoela baieztatu ondoren, eskumena duen organoaren bidez inbertsioa ematearen egokitasunari buruzko informazioa emango du. Eskumena duten zerbitzu teknikoaren bidez, Hirigintza Arloak txosten bat igorriko du honako gai hauen gainean:

1. Proiektuaren egokitasuna araudi hauetan aurreikusten denarekiko.
2. Proiektuko aurrekontuaren azterketa.
3. Aurreikusitako obraren gauzatze faseak eta egutegia.
4. Dirulaguntzaren gehieneko kopurua. Aipaturiko aurrekontu kreditua dirulaguntzaren gehieneko kopurua baino txikiagoa baldin bada, ebazpenaren proposamenak eskura dagoen kopurua gaintuko du, horrela ezartzen baita ordenantza honen 3. artikuluko lehenengo paragrafoan.

c)Ebazpena

Norgehiagoka diren dirulaguntzak: Bai eskaria bai espedientean dagoen dokumentazioa ikusirik, eta obra baimena emateko proposamena kontuan izanda, espediente osoa Hirigintzako Batzorde Informatiboaren esku jarriko da derrigorrezko eta loteslea izango ez den txostena eman dezan. Horren iritzia entzun ondoren, erabakimena duen organoak, Alkatetzak, dirulaguntza emateko erabakia har dezake bere kasuan.

Dirulaguntza izendunak: Modu zuzenean eman daitezke, nahiz eta edozein kasutan artikulua honetako a) eta b) ataletan aurreikusitakoa bete beharko den, bestalde, Udaleko Aurrekontu Orokorretan izendun bezala aurreikusita egon beharko dute, dirulaguntza horien arautegi erregulatzailan jasota dauden terminoetan.

11. Artikulua.-Dirulaguntzak ordaintzeko moduak.

Aldeko ebazpena jasotzen duten dirulaguntza eskaerak, Udal Zerbitzu Teknikoen Oniritzia jaso baldin badute, obra Ziurtagiriak aurkeztu eta berehala ordainduko dira. Obra ziurtagiri horiek Jasotako Funtsak zertarako erabili diren egiaztatzeko balioa izango dute.

12.Artikulua.-Baliogabetzea

Honako Ordenantza honetan zehaztutakoak bete ezean, datuak faltsutu, ikuskaritza lanak oztopatu edo Basauriko Udalak izapideak egiteko nahiz dokumentuak aurkezteko ematen duen hamar eguneko epea gaindituz gero, akordioa baliogabetu egingo da. Halere, horrek ez du kalterik eragingo, sorturiko gastuen eta ordainketen aurrean burutu daitezkeen ekintzengan edo administrazio nahiz zigor erantzukizunak eskatzeko unean.

13. Artikulua.-Udalaren betebeharrak.

Basauriko Udala erabilera publikoko izaera jaso duen eremuaren mantenuaz arduratuko da, hala nola: garbiketa, argia, hirigintza hornidura, lorezaintza, eta abar. Halaber, erabileraren ondorioz elementu horietan gertatzen diren matxurak ere konponduko ditu. Aldiz, Udalak ez ditu beregain hartuko, inolaz ere, lagatako plaza edo lorategi baten azpian egon daitezken garajeetan estalkiak edo alboetako paretak iragazkaizteko egiten diren obrak gauzatzean izandako okerren konponketak. Basauriko Udalak lagatako eremuak beren izaeraren arabera erabiliko ditu; horregatik hain zuzen, gerta daitezkeen edozein aldaketa edo alterazioa, unean unekoa izan arren, Jabekideen Komunitatearekin adostu beharko du alde zuzetik.

14. Artikulua.-Aplikazioa eta interpretazioa.

Honako arau hauen aplikazioa edo interpretazioa, eta indarrean dauden bitartean sor daitezkeen gorabeheren gaineko ebazpenak Hirigintza Arloko Ordezkaritzari dagozkio.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Honako Ordenantza honetan arautzen ez dena udal dirulaguntzak emateko Ordenantzan xedatutakoaren arabera arautuko da. Ordenantza hori 2004ko abenduaren 28an onartu zen, Basauriko Udalean eginiko ohiko Udalbatzan.

AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.”